JOKABIDE-KODE ETIKOA
(LANGILEAK-ELIKA)

LAN LEKUA

- ELIKAko langile guztiek edukazioz jardungo dute eta begirunea erakutsiko diete erakundeko langile guztiei.
- Lanaldia betetzeko ezarritako ordutegiak beteko dira.
- Ekipo, sistema eta programa informatikoak garatu beharreko jarduera gauzatzeko erabiliko dira eta behar ez den moduan ez dira erabiliko.
- Optimizatu egingo dira erabili beharreko bitartekoak (bulegoko materiala, inprimatzeak, papera, telefonoak). Ekidin egingo da bitarteko horiek eralgitzea eta zentzuz erabiliko dira, ingurumen eta etika arloan dituzten ondorioak aintzat hartuta.
- Erakundeko gainerako langileekin jarrera positiboa, adiskidetasun jarrera eta aktiboki entzuteko jarrera erakutsiko da.
- Jarrera irekia izan behar da gerta daitezkeen aldaketen aurrean eta arbuiatu egingo dira portaera eta jarrera oldarkorrak.
- Izpiritu berritzailea eta ekintzailea izan behar da interes-taldeen onerako lanak garatzeko.
- Langileek gaitasun profesionala eskaini eta ahalegin guztiak egingo dituzte euren egitekoak betetzean.
- Eguneroko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren gastuak baino ez dituzte egingo, eta horiek behar bezala justifikatu beharko dituzte.

INFORMAZIOA

- Erakundeko langileei buruzko informazioa (nominak, datu pertsonalak, kontu-zenbakiak, mediku-txostenak eta abar) isilpekoa izango da. Datu horiek ez dira bidegabe erabiliko.
- Bezeroek emandako informazioa edo/eta datuak isilpean gordeko dira. Informazio hori hedatu ahal izango da, baldin eta bezeroak horretarako berariazko baimena ematen badu.
- Bete egingo da datu pertsonalei buruzko legedia.

BEZEROAK

- Erakundearen bezeroak errespetuz eta edukazioz hartuko dira.
- Bezeroarekin adostuko da garatu behar den produktua (modua, epeak…).
- Ez da bezeroen ordainsaririk jasoko lan bat egiteagatik.
- Ez zaio aipurik kenduko beste lankide bati, gainerako lankideen edo/eta bezeroen aurrean.
- Onetsi egingo dira garatutako lanen inguruan erakundeko langileek edo/eta bezeroek egiten dituzten kritikak, hobetzeko ideiak eta abar.
- Ekidin egingo da bezeroen, hornitzaileen eta abarren eragina, jarrera horrek zerbitzuak azpikontratatzeko unean enplegatuen inpartzialtasuna aldatzen badu.
- Albait azkarren erantzungo zaie bezeroen erreklamazio eta gorabeherei, eta albait irtenbide egokiena eskainiko zaie.

GIZARTEA

- Bete egingo dira ezarritako arauak (laneko arriskuak, ingurumena, lan-eskubideak, eta abar).
- Informazioa euskaraz egin eta zabalduko da.
- Parte hartuko dugu foroetan eta ekintzetan gure jardueren berri emateko, hala eskatzen zaigunean.
- Erakundeak garatzen dituen ekintzak proaktiboki jakinarazi eta hedatuko dira.